

# Sumar

## **Guillermo Presa: “Guk bakarrik bermatu ditzakegu arabarren eskubideak”**

*Sumar koalizioak Gorte Nagusietarako Arabako hautagaitza aurkeztu du, eta esan du “berriz koalizio gobernu bat eratzeko berme bakarra” direla*

Gasteiz, uztailaren 1a.- Guillermo Presa da Kongresurako zerrendaburua Araban, eta esan du Sumar dela “arabarren eta euskaldunen eskubideak bermatu ditzakeen bakarra”. Gainera, baieztatu du talde horrek gobernuan presentzia handia izatea dela modu bakarra berriz koalizio gobernu bat osatzeko, eta garrantzitsua dela Sumar izatea indar nagusia, hainbat aurrerakuntza “bultzatu” baititu: lan erreforma, etxebizitza legea, trans legea eta klima aldatetaren aurkako legea, besteak beste.

“Sumarrekin bakarrik lortuko da koalizio gobernu bat osatzea, eta Sumarrekin bakarrik lortuko da eskubide gehiago eskuratzea eta aurrerantzean ere arabarrak babestea”, adierazi du Presak. Hautagaiak baieztatu duenez, koalizioaren “esparru politikoa” izan da bultzada nagusia koalizio gobernuak legealdi honetan egin dituen aurrerakuntzak egiteko, eta PSOEren jarrera gaitzetsi du. Izan ere, PSOEek boto erabilgarria aldarrikatu du: “Erabilgarria norentzat? PSOErentzat, PSOEko buruzagientzat, ala gure herrialdeko biztanleentzat? Erabilgarria zuretzat?”, galdetu du.

EH Bilduren deia ere arbuiatu du: Euskadiko boto aurrerakoiak batzea. “Gu gobernuan ez bagaude, ez du ezertarako balio, inork ez baitu ezertarako aukerarik emango, ezta negoziatorako ere. Guk bakarrik bermatu ditzakegu arabarren eta euskal herritarren eskubideak”, baieztatu du.

Cristina Macazaga Kongresurako zerrendan bigarrena ere bat dator Presarekin. Honela esan du: “Uztailaren 23an euskal herritarren esku egongo da gobernu aurrerakoa izatea, eta horretarako, beharrezkoa da Sumar alderdiak indarra izatea. Izan ere, Sumar

# Sumar

gobernuan egoteak bakarrik bermatuko du gobernuak denona den hori zaintzea, eskubideak areagotzea eta jendearen bizitza erraztea, herritar guztiena, zailtasunik handienak dituztenena bereziki". Gainera, adierazi du eskubideak areagotzeko eta gizartea babesteko "ezinbestekoa dela euskal alderdiek aulkiak eskuratzea".

Leticia Jimenez Senaturako hautagaiak, berriz, azpimarratu du Yolanda Diazen proposamen nagusiak garrantzi berezia duela: lanaldia ordubete murriztea alegia. "Proposamen honek denoi eragiten digu: zuri, niri, langile guztioi, eta niri bezalaxe lanak, amatasunak, zaintzak aisialdirik gabe uzten gaituzten emakume guztioi. Behingoz egia bihurtu nahi dugu hain famatua den mantra hori: lan egin bizitzeko, ez bizi lan egiteko", esan du.

Miguel Burdallo ere Senaturako hautagaia da, eta, Jimenezekin bat, baieztatu du Sumarren helburua zera dela: "ekonomia herritarren zerbitzura jartzea", orain arte bezala. "Beren lan indarra saldu behar dutenek soldata duina lortzea nahi dugu, ezeri uko egin gabe bizitzeko eta familia aurrera ateratzeko modua izan dezaten", zehaztu du.

Ana de Benito Kongresurako hautagaiak eskerrak eman dizkie Sumar koalizioa osatzen duten talde guztiei, akordioa lortzeko erakutsi duten eskuzabaltasunagatik.